

Espediente mota: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Emakida kontratua

Espediente zenbakia: ZE8-IV-31

Dokumentuaren erreferentzia: ERR_plegu_tek_2017-02_bhbt

ERR_plegu_tek_2017-02_bhbt

ERRIBERAKO KANTINA USTIATZEKO EMAKIDA KONTRATUA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- HELBURUA.

Erriberako kantinaren zerbitzua ematea da deialdi honen helburua, Plegu honetan eta Baldintza Administrazioaren Pleguan ezarritakoaren norainokoaz eta edukiaz.

2.- LIZITATZAILEAREN BETEBEHARRAK

Lizitazioan parte hartzeko ezinbestekoa izango da kantinaren instalazioetara bisita bat egitea. Bisita egin ondoren dagokion agiria lortuko da. Agiri hori dokumentazio administratiboarekin batera aurkeztu beharko da.

3.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

Administrazio-baldintza zehatzen orrietan ezarritakoez gain ondorengoak dagozkie:

- a) Gutxieneko inbertsio bat egin beharko balu erabilitako materialak ertaineko kalitatezkoak izan beharko dira.

Edozelan ere, ezer egin baino arinago eskaera bideratu beharko da udalaren aurrean, dagokion baimena lortzeko.
- b) Kontratua sinatzen denean 45 eguneko gehiengo epe barruan zabalduko da kantina. Zabaltzea egin barik epe hori igaro ondoren, Gobernu Batzordeak ustiatze kontratua deuseztatu egin dezake.
- c) Kantinako instalakuntzak jagon, ostalaritzako honelako establezimenduetarako bereziki aplikagarria den legedia zehatz eta mehatz gorderik.
- d) Dagokion kategoriari dagozkion ustiatzearen helburua eta muga orokorrak errespetatu. Esleipendunak ezin izango du aldatu zerbitzua emateko kantinaren lokalen destinoa, egoera onean mantentzera behartuta dagoelarik, egin behar diren konponketak eginez, baita erabiltzaileek egindako narriaduren erantzukizuna ere izango duelarik.

Askoz jota, 2. kategoriari lotutako zerbitzuak eman ahal izango dira.



- e) Ezin izango du egin egitura aldatu dezaketen obrarik Udalaren baimen espresuki barik.
- f) Esleipendunak Erriberako komun publikoen garbiketaz arduratu beharko dira dagokion kontrol inprimakia betetuz. Garbiketa hori, gutxienez, egunean egin beharko duelarik.
- g) Esleipenduna behartuta dago eskuduntzadun Erakundeek behar dituzten Osasun, Turismo, Ogasuna edo, ostalaritza garapenerako behar diren bestelako lizentzia, baimenak, ea. egunean edukitzen.
- h) Zerbitzua emateko orduan kaltetutako hirugarren batzuk indemnitzatzea. Horretarako, kontratua formalizatzerakoan, kantina zerbitzua dela eta, erantzukizunagatik, kantineko erabiltzaileak sartzen den 60.000 € gutxiengo arrisku polizaren suskripzioa kreditatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du esleipendunak.
- i) Hileko lehen lan egunean ordainduko du kanona.
- j) Jardueratik eratorritako tasa eta zerga guztien ordainketa.
- k) Erabiltzaileen eta kantinean lan egin behar dutenen jarrera egokiaz erantzun beharko du.
- l) Kantinearen kontserbazio eta mantentze gastuen kargu egitea, argia, ura eta garbiketa barruan direlarik.
- m) EUSKEREAREN ERABILEREA:
 - 1. Esleipendunak edo postuan egongo dan edozein langilek euskeraz jakin beharko dau, gitxienez ahoz; eta nahikoa gaitasun izan beharko dau zerbitzua euskeraz emoteko.
 - 2. Bezeroakaz lehenengo berbea euskeraz izango da beti.
 - 3. Ezinbestekoa izango da postuan ezarriko diran erroterak, kartelak... euskeraz izatea. Euskeraz eta erderaz ipini behar izatekotan, euskerazko testuari lehenetsuna emongo jako, hau da, hizkien tamaina bi aldiz handiagoa izango da euskeraz.
 - 4. Aurreko puntuan zehaztutako guztiak kalidadezko euskeraz ipiniko dira. Horretarako, esleipendunak udaleko Euskera Sailaren zerbitzua erabili ahal izango dau.
 - 5. Musikaririk ipintekotan, musika euskaldunak gitxienez %50eko kuota bete beharko dau.
 - 6. Udalak euskerea baino ez dau erabiliko esleipendunagazko hartu-emonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.



4.- ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK.

- a) Terraza jartzeko eskubidea izango du, Urigintza Sailaren Terrazen ordenantza eta haren berrikuspenak jarraituz.

5.- IUS VARIANDI.

Administrazioak interes publikoak horrela eskatuko balu, beharrezkoak liratekeen kontratuzko aldakuntzak sartuko lituzke, gerta daitezkeen benetako kalteak esleipendunari ordainduz. Gauzak horrela, kontratazio plegu edo iragarkian beren beregi aurreikusitako kasuez gain, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 107. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehatzetan ere kontratua aldatu ahalko da Baldintza Administratiboan Pleguaren 11. puntuan zehaztutako prozedura jarraituz eta bertan zehaztutako eraginekin.

6.- ORDUTEGIAK.

Kantinari dagokionez, bere kategoriarentzat orokorrean ezarritako ordutegia gordeko da, hau da, dagokion establezimenduen ordutegi berdina edukiko du.

7.- DEBEKUAK.

Esleipendunak ezin izango du utzi, berrakuratu edo jabez aldatu, ez eta beste inolako erako eskubideen lagapenik egin ere.

8.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOAK ETA ONDORIOAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223. eta 286. artikuluetan azaltzen direnak izango dira, 223. artikuluko d) eta e) letretan aurreikusitakoak izan ezik.

Horretaz gain, kontratua apurtzeko arrazoia izango da plegu honetako 8.a. atalean xedatutako guztia ez betetzea eta modu berean, 17. Atalean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor- edo administrazio-arloko zigorra izatea.

Kontratua amaitzearen ondorioak 225. eta 288. artikuluetan aurreikusten direnak izango dira.



Bermeon, 2017ko martxoan





II. eranskina – Planoak

a) Kokapena



b) Neurriak

